

BALIABIDE GILTZARRAK

Gure enpresak alderdi desberdinak dituzenez, jende desberdin askok egin dezake lan bertan, ikasketa eta lanbide desberdinak dituztenak.

Hasteko, lanbide heziketan helduen zaintzan ikasketa espezifikokoak dituen jendea beharko genuke gure zerbitzuak bikainak izan daitezen, baita zuzenbidean landu den jendea giza eskubideak berna daitezen. Aiton-amonen zaintzako pertsonetaz aritzean, pertsona kualifikatuak nahi ditugula azpimarratu nahi dugu. Hauek profesionalak direnez, noski ordainduta egingo dute lan. Kontratatzeko orduan, lehentasuna emango diegu titulu profesionalak dituzten langileei, zehazki, etxeko laguntzarako titulu kualifikatuak dituztenak. Langile hauek, konpainia emateko ahalmena izateaz gain, etxea garbitzeko eta txukuntzeko edota sukaldatzeko gai izan behar dira.

Informatikan aditu bat ere beharko genuke, gure web-orria eramateko, dena ondo kontrolatuta egoteko eta arazoren bat egonez gero azkar konpontzeko.



Horrezgain, gure bezeroekin aurrez-aurreko harremana edukitzeko, bulego bat edukiko dugu Donostian. Bertan hasierako harremanak gauzatuko ditugu eta bezeroek zalantzaren bat badute, bertan argitu ahal izango dituzte. Leku txikia izan arren, emango diogun erabilerarako nahikoa izango litzateke.



Bulegoarekin batera, biltegi bat ere edukiko dugu gure bozgoragailuak jaso ahal izateko. Horretarako, Donostian ere alokatuko dugu biltegi bat, gure materialak erraz jaso eta banatzeko.

